

Gaur egungo egoeran, egoki dirudi gure Hileko Gogoeta "ELKARTASUNARI" eskaintzea.

Don Jose Mariak sarritan aipatzen zuen balio hori; batzuetan, eskuzabaltasunarekin eta justiziarekin lotzen du, biak ala biak giza duintasunaren adierazpentzat hartuta.

Nire aburuz, giltzarria da (elkartasuna, kolaborazioa) eta, nahi baduzue, sekretu atomikoa, bizitza soziala irauliko duena. p319

Gizakia guztiaren oinarria da; gizakia nolakoa gizartea halakoa. Gizakia edo gizakiak zuzen, zintzo, eskuzabal, prestu, ondraduak badira, gizartea ere zuzen, zintzo, eskuzabal, prestu, ondradua izango da.

Esango nuke, halaber, gizartea edo alderdi soziala dela gizakiek benetako bertuteak dituztela erakusten duen termometrorik hoberena. p022

Elkarte edo komunitate baten irmotasuna eta sendotasuna bertako kideen elkartasun sentimenduaren araberakoa izango da. GURE KOOPERATIBETAKO KIDEEN EGIAZKO ELKARTASUNA DA KOOPERATIBEN INDARGUNEA. C12-1961/08

Kooperatibismoa onartzea elkartasunean sinestea da eta horretan sinesten duenak jadanik ezin dio mugarik jarri elkartasunaren aplikazio eremuari: giza elkartasuna hartzigarri aktibo eta indartsu bat da, bere aplikazio zirkulua zabaltzen den neurrian multiplikatzen den indar bat. p460

Lagun diezaiogun elkarri eta egon gaitezen ziur guri ere lagunduko digutela, eta denon artean aurrera egingo dugu. p316

Norbanakoaren eskubideak bezainbeste edo gehiago zaindu behar dira eskubide komunitarioak. p337

Gure konpromiso kooperatibistak ezin du begien bistatik galdu gizarte ordena berri bat lortzeko xedea. Beraz, ezinbestekoa dugu ahalegina egitea ordena hori gure eraginpeko eremuetan abiarazteko, baldin eta ez badugu molde estuko eta irteerarik gabeko kooperatibismo batean geratu nahi. C27- 1962/11

Hori guztia eta gehiago dira Don Jose Mariaren gogoeta eta hausnarketak, garai arruntetan adieraziak. Gure gaur egungo egoerak, etorkizunari behar bezala aurre egiteko aurki eta halabeharrez hartuko diren erabakiek probatuko dute gure elkartasuna. Modu bidezko eta eskuzabalez erabakitzekeo dugun gaitasuna neurtuko dute, gure enpresen komunitateetan langile kategoriak erabili gabe; "legez" egin daitekeena erabili gabe posizionatzea, eta berdintasun eta sakrifizio irizpideekin erabakitzea "min ematen dueneraino" (Don Jose Mariak esan ohi zuenez). Horrela erabakitzen badugu, ongizate komunaren alde egingo dugu, gure baitako sentimenduek bakea ekarriko digute, eta etorkizuneko belaunaldiek eskertu egingo digute.

Elkartasuna eta zintzotasuna berez dira errentagarriak. p348